



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Lehiaketa iragarkia: Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinaren eta komunen emakida administratiboa ematea.

Alkatetzak 2021eko martxoaren 25eko 869/2021 alkatetza dekretu bidez emakida esleitzeko oinarriak onartu zituen. Iragarki honen bidez Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinaren eta komunen erabilera pribatibo eta arrunterako administrazio-emakida esleitzeko deialdia egiten da.

1. Erakunde esleitzaillea

- a) *Erakundea:* Bermeoko Udala.
- b) *Espedientea izapidetzen duen bulegoa:* Idazkaritza Saila.
- c) *Espediente-zenbakia:* 2021/IDA_ERA_0051.

2. Dokumentazioa eta informazioa lortzea

- a) *Bulegoa:* Idazkaritza Saila.
- b) *Helbidea:* Irakaskintza 14-16.
- c) *Herria eta posta kodea:* Bermeo-48370.
- d) *Telefonoa:* 946 179 105.
- e) *Webgunea:* www.bermeo.eus

3. Lizitazioaren xedea

- a) *Mota:* Administrazio-emakida.
- b) *Deskribapena:* Erabilera pribatibo eta arruntaren emakida ematea.
- c) *Iraupena:* Erabilera pribatibo eta arruntaren emakidaren iraupena 4 urtetakoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu (epealdia urtero: ekainaren 1etik irailaren 30a arte).

4. Izapideak eta prozedura

- a) *Tramitazioa:* Arrunta.
- b) *Prozedura:* Irekia.
- c) *Modua:* Enkantea.
- d) *Lizitaziorako gutxienezko kanona:* 225,00 euro/hileko.

5. Bermeak

- a) *Behin-behineko bermea:* Ez da eskatzen.
- b) *Behin betiko bermea:* 667,51 euro (eraikuntzaren balioaren %3a).

6. Eskaintzak aurkeztea

- a) *Aurkezteko azken eguna:* Laneko 10 egun, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, I eta II eranskinekin bat.

c) *Aurkezteko modua:*

- BERHAZ arreta bulegoa (Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo).
- Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://www.bermeo.eus/1470.html>
- Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

7. Eskaintzak irekitzea

- a) *Erakundea:* Kontratazio mahaia.
- b) *Eguna:* Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2021eko martxoaren 26an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense